

Azaroak 27, astelehena. Portugalgo Partículas Elementales konpainiaren ‘Quiero la luna’ ikuskizuna.



- **Sinopsia eta konpainiaren informazioa**

- Txotxongiloen mundu magikoan, Leonor Bandeirak eta Carlos Silvak pertsonaia batzuen eta besteen emozioak, bizipenak, abenturak eta istorioak gauzaten dituzte, eta hori guztia bizitza osoan zehar gordetzen diren oroitzapena bihurtzen da. Denboraren puska fantastikoak dira, beste bizitza batzuen errealitateak deskubritzen laguntzen dutenak, bizitza zoragarri eta gatibuak, gure egunerokotasuneko objektuekin sortuak, eta horrek balioa ematen dio historia on bat kontatzeko sinpletasunari.
- 2023az geroztik martxan den Portugalgo txotxongilo-antzerki konpainiaren helburu nagusia da hainbat adierazpen artistiko (musika, poesia, eskultura, pintura) uztartzea, magia hutsezko antzezpenetan elkartzen diren beste lanbide askoren artean, betiere alderdi pedagogikoarekin. Ekoizpen propioekin, Partículas Elementares Teatro de Marionetas erreferentzia da gaur egun ingurunean, eta haurrak zein helduak barne hartzen dituen publiko zabala du.